



OSTALARITZA MAHAIA

2024ko apirilak 17

GAI-ZERRENDA:

- ✓ Ongi etorria.
- ✓ Sektorearen egungo egoeraren azterketa Foroko postu hutsak betetzea
- ✓ Abian den proiektua:
 - Tokiko ostalaritza dinamizatzeko jarduketa-plana
 - 2023 eta 2024ko kontrataziorako laguntzak
 - <Getxoz gozatzeko planak 2024> kanpaina
 - Getxo: helmuga turistikoa adimendunerantz aurrera
 - Flysch Bizkaia proiektua
 - DEAPIE interpretazio-seinaleen proiektua; aurrerapenak
 - GetxoLive
 - Elikadura jasangarriaren aldeko merkataritza-sarea Elikagaiak xahutzea
- ✓ Ideia eta proposamen berriak

BERTARATUAK: (% 41)

DEITUTAKOAK	BERTARATUAK	BERTARATU GABEAK	
		Arrazoi emanda	Arrazoirik eman gabe
Algorta-Andra Mariko jatetxeen ordezkaria	Monica Sésar (NIKKOU)	X	
Algorta-Andra Mariko taberna eta kafetegien ordezkaria	Hutsik		
Ereaga, Portu Zaharra, Kirol Portua eta Neguriko taberna eta kafetegien ordezkaria	Kotska Mandaluniz (BORDA ERRETEGIA)		X
Ereaga, Portu Zaharra, Kirol Portua eta Neguriko jatetxeen ordezkaria	Hutsik		
Areetako jatetxeen ordezkaria	Hutsik		X
Areetako taberna eta kafetegien ordezkaria	Ana García (PIANAMUL)	X	
Romoko tabernen ordezkaria	Per Urriolabeitia (LA MONA)		X



Romoko jatetxeen ordezkaria	Hutsik			
Getxo Enpresa	Félix Losada (Betizu Burger), Desiree Yesteren ordezkari (OKU LOUNGE)	X		
Romo Bizirik	Rafa Oteo (Kai Kai Pizza), Palomaren ordezkari	X		
Ekonomia Sustapena	Mirene Zabalgogeoazcoa	X		
	Rubén Justicia	X		

EDUKIAK

1. Bertaratutakoei agurra, sektorearen egungo egoeraren azterketa eta postu hutsak betetzea.

Mirene Zabalgogeoazcoa (aurrerantzean M.Z.), Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, ongiatorria eman die bilerara bertaratutakoei eta mahaiaren egoera azaldu du.

M.Z.-k mahaiaren gaur egungo egoera azaldu die bertaratutakoei: ez dira joan mahaiko hainbat ordezkari, ezta Asohge elkarteko ordezkaria ere. Horrenbestez, erabaki da hutsik geratu diren postuak betetzeko beste deialdi bat egin behar dela.

Bertaratutakoek beharrezkotzat jo dute mahaiak bere horretan jarraitzea; izan ere, lan egiteko dinamika argia eta laburra da, eta sektore guztirako da erabilgarria.

Udal honek aholkularitza emateko eta aktiboki entzuteko erakutsi duen hurbiltasuna eta proportzionaltasuna eskertu dituzte. Amaitzeko, adierazi du bere ikuspuntutik ostalaritza-sektoreak gehiago baloratu beharko lukeela.

Informazioa hurrengo gaietarako:

a) Tokiko ostalaritza dinamizatzeko jarduketaren plana

M.Z.-k adierazi du udalerriko ostalaritza dinamizatzeko hainbat jardueraren egitea proposatu zela 2023an.

2024an, ikus-entzunezko kanpaina bat egin zen sare sozialetan (bideoa ikusi: [GETXOKO OSTALARITZA \(youtube.com\)](https://www.youtube.com/watch?v=GETXOKO_OSTALARITZA)), udalerriko ostalaritza nahiz ostalaritza-espazioetan horri lotuta ematen diren zerbitzuak (dastatzeak, tailerrak, kontzertuak, etab.) ikusarazte aldera.

Hauexek dira kanpainaren emaitzak:

- Erabiltzaileak: 11.462
- Ikustaldiak: 23.000 erantzun

2. fasea: ekintza posibleak:

- Establezimendu gehiagok eskaintzarekin bat egitea
- Eskaintza dinamizatzea, kultur ekitaldiarekin batera
- Gastronomia-asteak: gai jakin baten arabera
- Pintxo-txapelketa



Sektoreari galdetuko zaio ideia-eraren bat berreskuratzeari buruz.

b) 2024ko kontratazioarako laguntzak. Lanbide-aren 2023ko laguntzen deialdiari dagozkionak

M.Z.-k jakinarazi du 2023an emandako dirulaguntzen kopurua: hamasei laguntza eman ziren; horietatik sei (laguntzen herena baino gehiago) izan ziren merkataritzarako, lau ostalaritzarako eta sei zerbitzuen sektorerako.

Eskararak aurkezteko epea itxita dago gaur egun; hala ere, 2024an beste deialdi bat egingo da. Ekonomia Sustapenak gehienez ere maiatzaren 3ra arteko epea du Lanbideren dirulaguntza eskatzeko; dirulaguntzaren baldintzak adierazi ditu eta jakinarazi du Ekonomia Sustapenak laguntza horiek zabaldu ditzan Lanbideak ebazpena eman behar duela lehenengo. Amaitzeko, esan du informazioa bidaliko dela, ohikoa denez, deialdia argitaratzen denean. M.Z.-k gomendatu du ikusten joateko 2023ko laguntzen baldintzak (webgunean argitaratu dira), baldintzak ez baitira asko aldatzen.

[Informazio gehiago.](#)

c) Getxo: helmuga turistiko adimendunerantz aurrera

M.Z.-k azaldu duenez, helmuga turistiko adimenduna (HTA) programak helmugen lehiakortasuna eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzea du helburu, gobernantzen, berrikuntzen, teknologiaren, jasangarritasunaren eta irisgarritasunaren bitartez. Helmugak ziurtatzeko, 97 betekizun eta 261 adierazle dituen metodologia bat erabiltzen da. Horren bidez, helmugaren heldutasun-maila baloratzen da, eta ekintza-plan bat du ondorio. Getxon abian jarri den metodologia praktikoan, udal-arlo guztiek osatutako diziplina anitzeko lan-mahaiak osatu dira, bost alderdi lantzeko: gobernantza, berrikuntza, teknologia, jasangarritasuna eta irisgarritasuna.

Ane Osorok 2023ko abenduan BasqueTourren diagnostikoa jaso zutela esan zuen. Eta berak azaldu nahi du BasqueTour emandako proposamenak mahai gainean daudela lantzeko. Gainera, Anek zalantzarik izanez gero dti@getxo.eus helbide elektronikora bidal dezaketela adierazi zuen.

d) <Getxoz gozatzeko planak 2024> kanpaina

M.Z.-k esan du planak argitaratuta daudela jada: [Getxo - Zer egin - Zer egin](#). Gainera, jakinarazi du Getxo FITUREn egon zela plan horiekin.

e) Flysch Bizkaia proiektua

Aditzera eman da Flyscharen webgunea martxan dagoela eta FITUREn aurkeztu zela:

Ikusi: [Bizkaiko flyscha](#).



f) DEAPIE interpretazio-seinaleen proiektua; aurrerapenak

DEAPIE programari buruzko informazioa eman da: [Getxo - ZER IKUSI - deapie ibilbideak](#) eta 2024an ezarriko diren ibilbide berriei buruzko informazioa eman da: Elvira Larrazabal, Juana Bizcarra, Ramiro Pinilla.

Ikusi gehiago: [Deapie - Ibilbide autogidatuak](#)

Amaitzeko, M.Z.k uste du beraiek direla programa turistikoko horien preskriptorerik onenak (Flysch, Deapie, eta Getxoz gozatzeko planak), eta informazio gehiago behar izanez gero, Turismo Bulegoan eskura duten material guztia dutela bezeroei eskaintzeko.

g) GetxoLive

M.Z.-k azaldu du Kultur Arloak GetxoLive zirkuitua (tokiko taldeen musika-jarduera ostalaritza-espazioetan) berreskuratu duela eta merkataritza-lokalak handitu dituela. Laguntzen deialdi bat egingo da, interesa duten establezimenduek eskatu dezaten. Horren harira, Mónica Sésarrek (Nikkou) adierazi du erraz irakurtzeko modukoa den laburpen-fitxa behar dutela, argi eta garbi geratu dadin zein den ostalaritza-lokalen barrualdean zein kanpoaldean ekitaldiak antolatzekeo prozedura.

h) Elikadura jasangarriaren aldeko merkataritza-sarea

M.Z.-k sarearen funtzionamendua gogorarazi du ([esteka](#)) eta Mirenek azaldu du jorratu beharreko edukietako bat dela eta Elikarekin erabakitzeke dagoela bat egingo duen elikagaiak xahutzeari buruzko proiektu pilotuarekin (ostalaritza-lokalen barruan egiten den xahutzeari buruzko diagnostikoa egin behar da, gaur egungo egoera xehetasun osoz ezagutu ahal izateko, neurri zuzentzaileak iradoki ahal izateko eta, epe jakin bat igarotakoan, berriz ere baloratzeko).

2. Ideia eta proposamen berriak.

Mónica Sésarrek (Nikkou) hondartzetako txiringitoak zabaltzeari buruzko informazioa eskatu du eta ontzat eman du Getxoko ostalaritza-sektorearen garapen ekonomikoa.

Oro har, bertaratutakoek adierazi dute udalerriko pintxoaren kalitate-eskaintza nabarmenki jaitsi dela eta ardo merkeagatik eta janari bizkorragatik ordeztan joan dela. Oso kezkatuta agertu dira goranzko joera horretan jarraitzekotan udalerriko eskaintza gastronomikoak izan dezakeen etorkizunagatik.

Sektorearekin komunikazioa hobetzea:

Rafa Oteok (Kai Kai Pizza) azaldu du ostalaritzan ez dela zaintzen posta elektronikoko bidezko komunikazioa eta Romon badagoela ostalarien Whatsapp-eko taldea (41 taldekide daude), zeina edozein motatako mezuak zabaltzeko erabili baitaiteke.



M.Z.-k jakinarazi duenez, Ekonomia Sustapeneko Arloak askotariko zerbitzuak eskaintzen dizkie udalerriko enpresei, saltokiei eta ostalariei; alabaina, ez du lortzen eskaintza hori sektorera heltzea.

Hirigintzako hobekuntzak:

Mónicak (Nikkou) galdetu du Euskal Herria kalea zati batean oinezkoentzat egiteako aukerari buruz.

Rafa Oteok (Kai Kai Pizza) adierazi du zein den Aurrezki Kutxa kalerako behin betiko konponbidea Romo Kultur Etxeko tartean.

3. Hurrengo urratsak:

- Enpresen **Kontsulta Foroa** deitzea **maiatzaren 22rako**. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.

OSTALARITZA-MAHAIAREN ERABAKIAK (2024-04-17):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako-aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. GetxoLive deialdia bidaltzea	Ekonomia Sustapena Arloa	Kulturak deialdia onesten duenean
3. Hutsik dauden mahaikideen postuak betetzeko deialdia proposatzea.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
4. Lokalaren barruan nahiz kanpoan musika-ekitaldi bat antolatzeko prozedurari buruzko dokumentua bidaltzea.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
5. Kalitatearen jaitsiera neutralizatzeko helburua duten ideiak baloratzea.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
6. Aurrezki Kutxa kaleko Romo Kultur Etxeko tarterako behin betiko konponbidea aztertzea.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
7. Hondartzetako txiringitoei buruzko informazioa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera